

Etxalarren bazen...

1. ATALA

- Manula: Gaur San Migel heldu da, eta etxeko lanak lehenbailehen bukatu behar ditugu ta San Migeli ongi etorria emateko tipoa jarri behar dugu!
- Modexto: Zer San Migel ta “ze demontre!”. Zer espero duzue harrekin, etxeko aziendak gailentzea? Lasai egon, ekarri baino eraman gehiago egingen du hark!
- Manula: Ixilkan zaude, txorora! Zeinek espero duzue ba laguntzea ez bada Goiko harrek! Zuek ederki ibiltzen zarete ba, tabernetan! Haiak eman egiten izanen dute!
- Hijinio: Hoiek ixilduko ez dira!
- Prudentzio: Zer dugu, “atzo gizon eta gaur ume”?
- Manula: (*Kattalin begira-begira*) A bueno, neska, ez naiz orain arte konturatu! Ederkin preparatua zaude! Zer ustetan hoa herrira, San Migel adoratzerara edo senar bila?
- Kattalin: Oi! Zuek zer pentsatzen duzue ba, etxetik elizara eta elizatik etxera bakarrik ibiltzea edo zer?
- Hijinio: (*Parrez*) Zurekin gelditzen den gizonak ez dauka aukera handirik... ez da askoren beharren izango!
- Kattalin: Ixilik hago, txorora! Hi ere nire bidetikan hoa eta!
- Bixente: Zuek beti erristan ibili behar al duzue?
- Modexto: Zuk horko lanak egiten ahal dituzue hobekien!
- Bixente: Horko lanak? Bai, bai, zuen partez beharko zenbaittek egin! Manuela, hoiek baino hobe genuen askotaz kiloko ogi bana egin izan bagenu!
- Manula: Bai, bai, pentsatzen al duzu baietz?
- Modexto: Bai, ederki ari zarete, aarree! “Zuek ez al dakizue jaingoikoa txikiaren berri”!

Prudentzio: Nik esaten dudana, “Altzaren zainetik, altza”!

Manula: (*saski hartzearekin batera*) Lagun iezadazu baratzerara, Kattalin, porru ta aza batzuen bila, eltzaria paratzen jartzeko.

Kattalin: Bai, ama, goazen.

(*Ama-alabak ateratzen dira. Berehala, Kattalin sartzen da laster-lasterka*)

Kattalin: Atta, atta! Ama erori da ta min hartu izan behar du!

Bixente: Nora erori da, kanpora edo barrura?

Kattalin: Espetu pixkot, begiratzera noa.

(*Badoa korrika eta laster itzultzen da*)

Kattalin: Atta, atta! Barrenera erori da!

Bixente: (*eskuak altxatuz*) Alajaina! Nere azak!

(*Kattalin berriro ateratzen da. Aitana leiho aldera doa ikustera*)

Prudentzio: Hara! Ageri da. Ilagorrin bordako belarsoroan maindire zuria! San Migel Orduan ez da oso aparte ibiliko!

Manula: San Migel heldu da! Hortxe dago, atarian! Mugitu, Kattalin, ta sukaldea txukundu!

(*Ama-alabek mahaia erdi aldera mugitzen dute. “kan-kan” atearen soinua*)

Manula: Kattalin, ireki atea.

(*Fraidea, San Migel eskuetan duela sartzen dira*)

Frailea: (*semeei*) Zuek lasai segitu zuen berriketan. Hementxe, urtero bezala! Zer moduz, Prudentzio?

Prudentzio: Ongi! Ongi esan beharko; gaizki esaten badut jendeak parra egiten du ta!

Frailea: Horrelakorik ez ezazue esan, mesedez, Jainkoaren izenean! Ez daukazu itxura oso txarrik behintzat!

Manula: Eseri zaitetz lasai ederrean, neka-neka egina egonen zara eta! Zerbait hartuko duzu!

Frailea: Ez, ez, eskerrik asko, estimatua dago. Presaka nabil eta nere ustez hoberena izango da Prudentziori lehenbailehen adorazioa eman eta herri aldera berriro abiatzera.

Manula: Bai, bai, entenditzen dut, baina zeozer hartuko duzu, oilo-salda bero pixkot edo!

Frailea: A! Orduan pixkat eseriko naiz! Egia esanda, salda pixkot gustora hartuko bainuke, baina ez gehiago.

Frailea: Ez nuke jaten hasi behar baina... itxura ezin hobea dauka haragi horrek, e?

Manula: Horixe, probatuko duzu! Etxekoa da eta!

Frailea: Oraintxi oroitzen naizenez, Prudentzio, iaz Andrea hil zitzaizula enteratu nintzen.

Prudentzio: Bai, hil zen, bai. Denak egin behar duguna da ta! Hark egin du, zer egin behar dugu? Jainkoak handiagotik guarda gaitzala!

Modexto: Hau aditu al duk noizbaite? Behin batean, ez dakit nongo baserriko andrea konpratara jeitsi zen herrira, ta apezarekin topatu ta honek esan omen zion: “Aurten nere etxera ez da zure oilaskorik ailegatu.” Orduan andreak esan zion : “Bai? Nere baserrira aurten ez da inor azaldu alorra bedeinkatzera”. Eta apezak esaten dio: “Nik Ezpideko sorotik bidali nuen zure alorrera bedeinkazioa”. Andreak berriz kontestatu zion: “Nik ere Ezpideko sorotik bidali nituen bi oilasko. Ez al dira ailegatu?”

(Bi anaiak parrez)

Hijinio: *(Modextori ukondokadaka, altxatzerakoan)* Aizak, aizak hau!

(Mahai aldera, fraidearengana zuzentzen da).

Hijinio: Aralar alde hartan, zer moduz habil? Adittu diat abere asko izaten hituela.

(Bixente altxatzen da eta Hijiniorengana zuzenduz, bizkarretik gogor hartzen du, aurrera eramanez).

Bixente: *(Haserre)* Motikoa, arrunt txoroa al zara edo! Ez al dakizu fraileari beorriko hitz egiten behar zaiola edo?

Hijinio: *(Fraidearengana zuzenduz)* Beorri, beorri!

Frailea: Zeinek esan dik horrela hitz egiteko?

Hijinio: (*Seinalatuz*) Attak esan zidak hiri beorrika hitz egiteko!

Frailea: Attak?

(*Bixentek ezezko keinua egiten du*).

Frailea: Bueno, jarraitu beharko dut nere lanean. Dena primeran zegoen: bai salde, bai haragia eta dena. Datorren urte arte esan beharko dizuet eta eskerrik asko denagatik.

(*Denak fraideari begira geratzen dira*)

Frailea: Orduan, aio eta hurrengo arte (*Badoa*)

Prudentzio: Aizu, noiz egingen aurtengo bedeinkazioa, heldu den urtean, ala?

Frailea: Aaa! Hau burua nere hau! Izan ere, urteekin batera badakizue... oroimena alditik aldira okerrago. Ia ahaztu zitzaidan Prudentziori bedeinkazioa ematea. Ai kortxo! Hala, Prudentzio, goazen!

(*Prudentzio ia ezinean, belaunika jartzen da, Kattalinen laguntzaz*)

Frailea: In nomine patris, et filium et spiritu sanctus,...amen.

Kattalin: (*Ixilik*) Attona, dirua, dirua!

(*Prudentziok ateratzen du sakelatik zapi txuri bat eta handik dirua. Ondoren, denak "izoztuak" frailea izan ezik*)

Frailea: (*Publikoari*) Gaur hemen gure San Migel dugunez, aprobetxatu behar dut denok gure San Migelek adorazioa jasotzeko. (*Publikoarengana joanez*) Eta bitartean, denak kantari e? Hasi "Migel, Migel, Migel gurea..."

(*Publikoan bedeinkazioa banatzen du eta eszenatokira bueltatzen da*)

Frailea: (*Publikoari*) Eta gainerakoak, arratsaldean elizan ikustea espero dut. (*etxeakoak desizozten dira*) Beno, zuek denok ere arratsaldean elizan ikustea espero dut. Aio eta hurrengo urte arte.

Denak: Aio, apeza. Bai, ongi segi!

Prudentzio: Etorri denok hona! (*Bastoiatz golpe bat lurtean emanaz. Denek aulkia hartu eta aitonaren ondoan esertzen dira*)

Manula: Zer duzu, attona, esan beharra?

Prudentzio: Aditu erne-erne! Aspaldian nere barreanean daukadan istorio bat kontatu behar dizuet konfidantza osoan. Baina zin egin beharko didazue orain kontatuko dudana ez dela hemendik aterako!

Besteak: Bai, bai, attona, lasai kontatu!

Prudentzio: Behin batean, Frantziako mendietan, nere gazte denboretan, pagoa ateratzen ari ginala,...

2. ATALA

Trabuko: Egunon! Benga, hasi lanean! Hik hori txikitu behar duk!. Hik, Hijinio, dena txukun-txukun utzi behar duk! Kargan jar hadi, eta hi, Modesto, asto!

(Lanean hasten dira, enkargatuak bueltaka bijilatzen dituelarik. Modesto saskia kargatzen ari dela...)

Trabuko: Saski hortan zakar gehiago sartzen duke?

Modexto: *(Eskua kolkopean sartu, sobrea atera eta aurpegia aurean erakutsiz)* Zuek ematen duzuen jornal hontan ere bai, e? *(aprobetxatzen du zahatoa hartzeko eta tragoxka bat ardo hartzeko. Trabukok kentzen dio zahatoa)*

Trabuko: *(Haserre bizian)* Ez bahaiz ixilik egoten ta segituan lanean hasten, jo ta zubitik beheiti botako haut!

Modexto: Ni zubitik beti? Bai, bai, ni behean ordu, hi beti pasatua izanen haiz, Bai! Ekarri zahato hori

Modexto: Atzo gure attonak ikaragarritzko istorio polita kontatu zigun, baina esan zigun inori ez kontatzeko.

Trabuko: Hi, konta ezak lasai, ... Ez al duk konfidantza?... Ez duk hemendik aterako... Bizi guztian elkarrekin lanean eta...

Modexto: Bueno, kontatuko dut, ba! Baina konfidantza osoan, e?

Trabuko: Bai, bai lasai! Ez duk hemendik aterako!

- Modexto: Alegia, egun batean, bere gazte denboretan, Frantziako mendietan lanean ari zela, pagoa ateratzen, halako batean, bere lagun hoberenari, Migeltxori, ez dakit nola baina enbor kozkor bat erori omen zitzaion gainera ta lasterka laguntzeko asmotan joan zen, egin ahalak egin omen zituen enborra altxatzeko, baina... ezin izan zuen deus egin: “Hi, Prudentzio, nere lagunik hoberena hintzanez ta mundu hontan bakarrikan nagoenez, paper puxka baliotsu bat bazeukat kolkopeko patrikan. Har ezak hiretzat! Baina beste puxka bat falta duk, ta hori harrapatzeko joan beharko duk Etxalarko... ta hantxe gelditu omen zen gizarajoa, esan behar zuena bukatu gabe.”
- Trabuko: Baina hori egia al da? Hori besterik ez al huen esan beharra?
- Modexto: Ez zekiat, guri honelaxe kontatu zigun behintzat, baina esan bezala, hau ez dadila hemendikan atera!
- Trabuko: Beno, gosaltzeko denbora aspaldian bukatu da! Lanean hasteko garaia da. Mugitu!

3. ATALA

- Modexto: Aizak, hi, attak esan zidan gauean atera beharrak garela “biajera“, eta erretira ona egiteko ta tipoan azaltzeko.
- Hijinio: Jo! Beti halakotan! Kristorena bota behar genian ta! Geldi hadi ere pixkot, eta gero etxera joango gaituk biok!
- Trabuko: Eh, oídme! Antes les he oído a Modesto y a Hijinio, los de Berdabio, ¿les conocéis?, que hoy a la noche iban a salir de contrabando.
- Guardia zibil I: ¿Ah, si? ¡Muy bien, muy bien! ¡Les estaremos esperando como dios manda!
- Guardia zibil II: Y gracias por la información. ¡Ya verán esos lo que es bueno!

(Bakoitzak bere aldetik martxa egiten du. Aita eta semeak azaltzen dira kontrabandoko zaku bana kargatzen dutela).

- Bixente: Honelaxe egin behar dugu: Ni bijilatzen geldituko nauk, goardiazibilak noiz agertuko diren, ta ikusi bezain pronto, goiko bidetik abisatuko zaitzuet.

Hijinio eta Modesto: Egina dago. Orduan, esan bezala! Goazen!

Guardia zibil I: ¿Que haces tú aquí a estas horas de la noche?

Bixente: Eeee... he venido para ver los cerdos, para comprar de ibero.

Guardia zibil II: ¿Es verdad eso?

Guardia zibil I: ¿Con que a comprar cerdos de ibero, eh?

Guardia zibil II: Bueno, vamos a movernos, si no esos otros se nos escaparán echando puñetas! (*Bixenteri*) Tú ponte ahí, contra la pared! Quietecito, que enseguida volvemos!

(Ziztu bizian badoaz eta berehala agertzen dira)

Guardia zibil I: (*Hijiniori*) ¡A ver que llevan ustedes ahí, en esos paquetes!

Hijinio: Eee... comestibles pal monte, pa carboneros y esos.

Guardia zibil II: Con que comestibles, ¿eh? Dejad los paquetes en el suelo que voy a ver que clase de comestible es.

(Zakuak lurrean utzi, eta guardia zibil batek irekitzen du)

Guardia zibil I: ¡Uy uy! ¡Que comestible más rico! ¡A ver decidme! Les hemos pillado haciendo contrabando de puntillas.

Guardia zibil II: ¿Es verdad lo que dice este?

Bixente: Lo que pasa es que he estado en Ibero comprando cerdos y la etxekoandre me ha dado unos trapos que le hacían estorbo.

Guardia zibil II: ¡Es pura mentira todo lo que dice! ¿Es verdad Vicente, que has estado comprando cerdos?

Bixente: ¡Si, si, es verdad! ¡Y si quieres, que te digan mis hijos!

Modesto eta Hijinio: ¡Si, es verdad!

Bixente: Si es verdad, si. Y cuando le he dicho que he ido a comprar los cerdos, me ha pegado y me ha dejado sin conoedora.

Guardia zibil II: ¿Es cierto eso? ¿Quién te ha pegado?

Bixente: (*Seinalatuz*) ¡Ese!

Guardia zibil I: ¡Fuera! ¡Fuera de mi vista! ¡Que desgraciado!

Bixente: Toma, esto pa tu. Regala de mis partes.

Guardia zibil I: ¡Ah, puros! ¡Muchas gracias! Ahora iros tranquilos a casa. ¡Ya veréis, le voy a mandar a ese de aquí echando puñetas!

(Bixente eta semeak zakuak hartzen hasten dira)

Guardia zibil I: ¡Chiss! ¡No, no! Dejad esos sacos ahí, que yo me los llevaré.

Bixente: *(Harriturik)* Pero... ¿Puros, regalo de mis partes?

Guardia zibil I: Si, si muy buenos! Pero ahora dejad esos sacos ahí, que yo ya me las arreglaré para que no os pase nada. Y de esto vosotros, ya lo sabéis, ¿eh? Estad calladitos. Si os preguntan, no sabéis nada. Ya sabéis lo que os conviene, ¿no? Y si no, ¡al agujero!

4. ATALA

Hijinio: Atzo zer pasatu zen? Ez al zaizue iruditzen atzoko hura ez zela normala?

Bixente: Normala? Ezta pentsatu ere! Ni bijilatzen gelditu nintzenean, segituan azaldu zituan ta, lasterka zuzenean neregana. Hori ezin da inola ere normala izan. Ene ustez, zenbaittek salatu ziela beste horiei, baina hau ez al da harritzeko modukoa? Zeinek zekien?

Hijinio: Ez dakit zeinek jakingo zuen, baina zenbaitek jakinen zian, bestela...

Manula: Zuri, Modexto, zer iruditzen zaizu?

Modexto: Ez dakit, ez daki zer pentsatu ere! Eskapo latzak eginak gara! Eskerrak kabo zerri horri, eskerrak eresia dagoen, bestela...

Manula: Behintzat ez zen deus pasatu, eskerrak! Kattalin, loreei ura bota al diezu?

Kattalin: Ez, bihar botako ditet.

Manula: Bihar? Atzo ere gauza bera esan zenidan, bihar eginen zenuela. "Bihar...bihar! Berriz izanen ditugu hankak ihar!"

Hijinio: Ñoo! Atzo kristoren jaia egin genian, eh? Hura zen umorea, hura jende pila! Ez al zaik iruditzen, Modesto?

- Modexto: Bai, bai pentsatzen ahal duk baietz! Ni aitaren mandatoarekin hiregana joan nintzenean, harrituta gelditu nintzen, kristoren giroa zegoen!
- Manula: Kattalin, ez al duzu deus esaten? Aditu dut nobioa egin duzula, Trabukorekin ibiltzen hasi zarela, zer moduz?
- Kattalin: Uuu! Arrunt ongi, espezial! Atzoko jaian elkarrekin dantzatu genituan pieza mordoxka. Arrunt gauza politak eta ederrak esan zizkidan. Arrunt emakume ederra eta liraina nintzala eta gauza gehiago... gero etxera lagundu zidan... ee...
- Manula: Esan ezazu esan beharrekoa, bestela ez hasi! Zer da berria, irudi harro hau!
- Kattalin: Bueno... Esan zidan, herriko neskarik politena nintzela ta nerekin ezkondu nahi zuela.
- Manula: Ta zuk zer esan zenion?
- Kattalin: Zer esan nion? Hori galdera txorrea! Zer esanen nion ba, baietz! Honelako mutil dotorea nik non harrapatu behar dut bestela?
- Manula: Bixente, alaba ezkontzen zaigula!
- Prudentzio: Ni harrituta nago, arrunt harrituta gainera! Ez dakit, baina lehengoan nere gazte denboretan pasatutako istorio hura kontatu geroztikan, gauza arraro asko igarotzen ari dituk etxe honetan. Ta hori konfidantza osoan kontatu nuela, eh? Ai! Nere ustez norbaiti eskapatu izanen zaio, konfidantza osoan, noski, horri ere baina... Alde batetik atzo estraperloan ari zirala harrapatu! Zenbaittek salatu izanen zieten “beste horiei” bestela, nola? Ta gainera, jaian egon behar zian, zergatik Modextok han eman omen zion mandatoa Hijiniori, etxera goiz joateko. Ta bestetik, “gure oilandak” nobioa egin duela, ta gainera ezkontzera omen zeak, egun batetik bestera! Zeinek pentsatu behar zian hori? Nik uste nian neskazahar gelditu behar zuela, komaidios! Nik honeri deneri usai txarra hartzen zioat! Hemen zebaittek azaldu beharko dik, paper puxka honen atzetik baitabila, hor barna bazterrak nahasten dabilena, bai. Ta lepo hautsiko zein den azertu baietz!
- Trabuko: Kaixo, arratsalde on!
- Denak: Berdin!
- Bixente: “Har ezak eta hor zegok”

Kattalin: Trabuko, oilo-salda bero pixkot hartuko al duzue?

Trabuko: Gustura aski, bai.

Bixente: Zer zabilta, Trabuko?

Trabuko: Hementxen! Auditan nenbilen ta begi itxi-ireki baino lehenago, kristoren ekaitza hasi dik, izugarria, motel! Ta erdiz-erdiz harrapatu zidak! Ta honara etortzeak gogoratu zeak nahiz eta hasieran lotsa pixkot eman...

Manula: Ixilik zaude motikoa! Lotsa? Gure tartean? Mesedez, etzazula horrelakorik esan! Ederki egin duzu! Hurrengo baterako ere, esaten dizut.

Trabuko: Beno, hemen nagoenez, gauza bat esan behar dizuet. ZZZera... alegia....

Manula: Esan behar duzuna esan lasai, eh?

Trabuko: Alegia, Kattalin ikaragarri gustatzen zaidala. Atzo elkarrekin dantzan ibili ginan, ta... arrunt maite dut. Berak ni ere bai uste dut, igualtsu, ez al da hala?

Kattalin: Bai, bai matte zaitut!

(Denak izoztuta Prudentzio izan ezik)

Prudentzio: Boo! Nahiko dugu! Komaidios, hauxe duk gainera! Baina seguru negok, eh? Ta seguraski beste paper puska ere berak edukiko dik! Azaldu duk falta zena! Erortzen hasita, ez daki horrek non erori den!

(Denak mugitzen hasten dira)

Prudentzio: Kattalin! Hatoz pixkot honara!

Kattalin: Zer duzu aitona?

Prudentzio: Kattalin, zorionak, ttiki! Kristoren poza ematen dit zu ezkontzeak! Ta gainera, horrelako mutil dotorearekin! Ta pentsatzen dut, zu Kattalin zarela gehien maite zaitudana ta berehalaxe ezkonduko zarenez, esan behar dizut paper puxka hura, lehengoan aipatutakoa, non den zuri bakarria esatea!

Kattalin: Egitan? Eskerrik asko, aitona!

- Prudentzio: Beitu. Hementxe gordetzen dut! Baina kondizio batekin, eh? Inorri ez esatea, eh? Hau bien artean geldituko da, konforme?
- Kattalin: Bai, bai aitona, hortaz lasai egon! Ez diot inorri deus ere esango.
- Hijinio: Modexto, zer iruditzen zaik herrira jeisten bagaituk bueltaxka bat ematera?
- Modexto: Espezial! Bueno, gu herrira goaz zein giro dagoen ikustera, ta berehalaxe etorriko gara.
- Manula: Ongi da, baina jator ibili, gizonak bezala ibili, erostunik heldu bada ere.
- Prudentzio: Bueno, ni ere banoa ohera! Bihar beste egun bat izanen da eta martxa dut. Manula, zuek ere hobereña ez al zenukete bera izanen? Ta senargaiei bakarrik utzi, berdin ze esanak izanen dituzte eta!
- Manula: Bai, bai. Ni ere banoa, neka-neka egina nago eta. Gaurko eguna gogorra izandu da eta.

(Agurtzen dira eta bikotea bakarrik gelditzen da)

- Trabuko: Kattalin, maitea! Arrunt pozik nago zure gurasoek ezkontzeko permisoa eman didatelako, baina... kezka bat dut... zurekin ezkonduko nintzateke arrunt gustura, baina... ez da posible izanen!
- Kattalin: Zergatik esaten duzu hori? Ze ba, zer duzu ba? Zer pasatzen zaizu ba? Ez al naiz zure gustokoa?
- Trabuko: Ez, ez da horregatik! Badakizu asko maite zaitudala! Zera, nere jornala ez da batere txarra, baina etxea, badakizu, nahiko zaharra dudala, ta obra batzuk egin nahi nituzke, Kattalin, zuretzat hobereña nahi dut, baina ez zait etxea konpontzeko dirua ailegatzen.
- Kattalin: Lasai egon trabuko! Horren kontua! Niri igual zait etxe zaharxeago batean bizituta ere! Nik nahi dudana zurekin ezkontzea da!
- Trabuko: Bai, bai, nik ere bai! Baina gertatzen dena da, egun batean etxeke ganbaran traste batzuen bila nenbilena, paper puxka bat harrapatu nuen, baina beste puxka bat falta zaio. Ta uste dut tesoro bikain batena dela, hala ematen du behintzat. Beste puxka edukiz gero, Orduan bai ederki! Herriko aberatsenak izanen ginateteke, pentsatu: herriko etxerik hobereña, zu emakumerik ederrena, soinekorik hobereñak... ententitzen al duzu?

Kattalin: Bai, bai entenditzen dut. Trabuko, nik badakit non dagoen paper puxka!

Trabuko: A, bai, non?

Kattalin: Lehenago aitonak esan dit non gordetzen duen, baina esan dit inori ez esateko. Baina zuri esango dizut, nere gizona izanen zarenez.

(Ateratzen du gordeta zegoen lekutik)

Kattalin: Hau al da?

(Trabukok ateratzen du berak duen puxka eta Kattalinek emandakoarekin elkartzen du)

Kattalin eta Trabuko: Hau da, bai hauxe da!

(Bikotea oso pozik dagoela, atzetik mamu bat azaltzen da)

Mamua: Oooo!

Trabuko eta Kattalin: Aaaa!

Prudentzio: Ja,ja,ja! Azkenean konsegitu dut nik nahi nuena!

5. ATALA

Manula: Bihar zerria hil egin behar dugu ta hoberena izanen da gauzak preparatzen hastea. Bestela, egun bereko utziz gero, badakizu zer gertatzen den.

Prudentzio: Bai, bai alde z aurretik dena preparatuta utzita hoberena, bestela nahi ta ezinean ibiltzen gara!

Manula: Ni tipulak txikitzen noa.

Prudentzio: Nik momento batean labanak zorrotz behar ditut, arrunt kamutsak daude eta. Ta orain oroitzen naizenez, iratzea goiko bordatik ekarri behar zerria erretzeko.

Manula: Bai, horixe; oroitu gero semei esatea! Zer duzu hain kontentu?

Prudentzio: Deusez, deusez, nere gauzak.

Manula: Ez al duzu nerekin konfidantzarik? Benga esan zer duzun? Biok bakarrik gaude eta!

Prudentzio: Alegia, burura etorri zait. Badakizu, Anjel, urtero bezala Berako monjetara joan zen erregaloak eramatera, zerri puxkak eramaten baititu: xolomua, odolkiak... ta aurten esan omen zion hango monjari: “hemen dituzue hoiek, xolomua, urdaila, odolkiak...txistorrak oraindik bigun xamarrek daude, baina gogortzen direnean, etorriko naiz”.

(Biok barrez, anaiak agertzen dira “egun on” esanez)

Hijinio: Zer ari zarete?

Manula: Hementxe, bihar zerri matantza dugu ta lanak aurreratzen! Ze uste duzu, ba?

Modexto: Baina bihar eginen dugu bai!

Prudentzio: Gaur egin daitekeena ez sekula biharko utzi! Ta nahi duzuenean, goiko bordatik iratzea ekarri, hemen ez duk batere gelditzen ta!

(Momento batean Bixente etxean sartzen da eta Prudentzio altxatzen da)

Prudentzio: Begiratu zer dudan!

Bixente: Utz iezadazu pixko bat! Xo, mapa da! Zer da hau? Hau al da aipatu zenuen papera? Haratx! Dena dago, bi puxkak daude ta!

Modexto: Non harrapatu duzu? Non zegoen?

Prudentzio: Non? Ez dakit, baina ekaitzarekin batera etorri zen!

Hijinio: Ekaitzarekin?

Prudentzio: Bai, ero dago; Bueno, zuek Bixente, Modesto eta Hijinio, paperak hartu eta zeozer harrapatzen ote duzuen joan behar duzue, paperean paratzen duen lekuarekin jotzen ote duzuen, zer den ikustera!

Gizona: Ongi da. Goazen!

Manula: Zer moduz pasa duzu gaua Kattalin?

Kattalin: Arrunt gaizki! Gau guzian ez dut begirik itsutu ere!

Manula: Ze ba? Zer zaude, ezkonduko zarelaiko nerbiosa?

Kattalin: Ez, ez da hori! Bart Trabuko eta biok hemen gelditu ginen sutondoan goxo-goxo. Ta halako batean mamu bat agertu zen. Ta ikaragarritzko beldurrez, ziztu batean martxa egin genuen.

Prudentzio: A bai, e?

Manula: Hatoz, hatoz hona gaixoa! Lasaitu, amets txarren bat izanen zenuen eta!

Kattalin: Ez, ez, ez da ametsa izan. Egitan ari naiz. Mamu bat azaldu zen!

Prudentzio: Ja, ja, ja! Ta non? Hemen, sukaldean?

Kattalin: Bai, hementxe bai, sukaldean!

Aita–semeak: Ailegatu garela!

Prudentzio: Zer moduz egin duzue buelta? Zerbaite harrapatu al duzue?

Bixente: Guk “hautsi urratuak” egin ditugu.

Prudentzio: Orduan azal ezak!

Bixente: Paperean paratzen zuen tokira joan gara, eta gure borda goragoxeoko txoko hartara, ta ba al dakizu zer zegoen?

Prudentzio: Zer?

Bixente: Urre mina bat! Begiratu aitona! (*urre poltsa erakutsi*)

Prudentzio: Bai, e?

Bixente: Bai, ta gainera diru egina ere ekarri dugu!

Prudentzio: Ederki zegok, espezial!

Bixente: Bueno, gazteak, asto zuriaren gainera joan beharko diagu kuluxka bat egitera. Gaurkoan irabazia zeukeagu eta!

Manula: Bai, bai, bera izanen duzue hoberena, zergatik badakizue, bihar zerri matantza dugu ta ze egin behar asko izanen ditugu!

(*Eta ohera doaz*)

Manula: Beno! Biharko gauza mordoxka falta dira ta, Kattalin, herrira jeitsi beharko duzu enkargu batzuk egitera.

Kattalin: Bai, bai! Zer dira ekarri beharrak?

Manula: Ekarri beharrak... hobe duzu apuntatzen baduzu. Bestela erdiak baino gehiago ahaztu egiten zaizkizu: tipulak, baratxuriak, heste batzuk, lizta ere beharko dugu, pattarra, ardoa eta ogirina.

(Kattalinek zestoa hartzen du)

Manula: Eskatu dirua aitonari.

Kattalin: Aitona, emanen al didazu dirua, enkarguak egiteko?

Prudentzio: Orain ere bai? Bueno bale, tori! ta zerbaitte polita ere erosi zuretzako,eh?

Kattalin: Eskerrik asko aitona!

Manula: Orduan esan bezala, ta “han ordu hemen”.

Kattalin: Bai, bai, gero arte!

6. ATALA

Bittori: Egun on, Kattalin, zer moduz?

Kattalin: Ongi, ongi. Zer dituan horko horiek?

Bittori: Horiek, komuneko paperak ditun! Lehengo astean ekarriak.

Kattalin: Komuneko papera? Zertarako?

Bittori: Zertarako izanen dun, ipurdia garbitzeko!

Kattalin: Ipurdia garbitzeko? Nik arto koxkorrarekin garbitzen dinat!

Bittori: Bueno, Kattalin, zer nahi dun?

Kattalin: Bihar zerri matantza dinagu eta behar dizkinat... tipulak, baratxuriak, heste batzuk, lizta mordoxka, pattarra, ardoa eta ogirina. Eta hor eskaparatean ikusi dinat sonrero bat ta jakin nahiko niken zenbat balio duen.

Bittori: Hori garesti xamarra dun. Orain dela hiru bat urte ekarri nian, Alduntzingo kondesarentzat. Ez ziala gustatu eta, ia ez dinat gehiago salduko. Horrexegatik galdu ditinat ahorro guztiak.

Kattalin: Esan zenbat den!

Bittori: 200 euro.

Kattalin: Ez dun ba hainen garestia. Eraman eginen dinat. Koltxoi hamalau metro eman behar didan, etxeakoak konpontzen hasi behar dinat eta! Zerbat zor dinat?

Bittori: 235 euro.

(Kattalinek aitonak emandako dirua ateratzen du)

Bittori: Alajaina! Hauxe dun diru berria! Neska, neska nondik atera dun?

Kattalin: Gure aitonak etxean egiten dizkin.

(Bittori eta Kattalin izoztuak, Trabuko agertzen da)

Trabuko: Diru faltsoa,e? Igerriko zeak, bai. Ikusiko dik zer den ona!

7. ATALA

(Eszenatokiko dekoratuan “Carcel de Pamplona” jartzen duen aurrealdean Prudentzio eserita dago. Beregana guardi zibil pareja hurbiltzen da)

Guardia zibil I: Con que fabricando dinero falso, ¿eh? A ver, dinos, ¿Dónde está esa mina de oro?

Prudentzio: Nere ahuntzak egunero pasatzen dira minaren gainetik.

Guardia zibil II: Bueno! Ya que no nos quieres decir dónde está esa mina de oro, ya puedes aprovechar bien lo que te queda de vida, porque mañana morirás. Te han sentenciado a muerte.

Prudentzio: Bai? Urte beteko bizia uzten badidazue, nere bizitza guzia kontatuko dizuet, egunero bertso bat eginez.

Guardia zibil I I: Bueno. Ahora nos vienes con versitos.

Guardia zibil II: Esto habrá que consultarlo con los superiores. Vamos y mañana te daremos la respuesta.

(*Badoaz, eta buelta*)

Guardia zibil II: Bueno, ya lo hemos consultado y traemos noticias buenas para ti. Te han concedido un año de vida, Prudencio! Pero a cambio nos tienes que contar todo.

Guardia zibil II: Pero, todo todo! Especialmente lo de esa mina de oro que tienes por ahí, eh?

Prudentzio: Lehen esan bezala, urte bateko bizia uzten badidazue, nere bizitza osoa bertsoan kontatuko dizuet.

Guardia zibil II: Eso ya está mejor!

Etxalarren bada gizon bat

Deritzen dena Trabuco.

Hitzak ederrak, bihotza faltso,

Sekulan ez zaio faltako.

Egin dituen dilijentziak

Berari zaio damuko.

Neura buruaz ez naiz oroitzen

Zeren ez naizen bakarra.

Hazitzekoak hor uzten ditut

Bi seme eta hiru alaba.

Jaun zerukoak adi dezala

Hoi en amaren negarrak.

OHARRA: Antzerki hau 1998.urteko *Leinarriak* liburutik hartua dago. Bertan “Goizuetan bazen...” izenburuarekin agertzen da. Guk gure egoerara moldatu dugu.